

ANAITASUNA

286. zenb.

1974.eko hazilaren 30ekoa

Pelota, 4 - 1. - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495



Erdararen eta euskararen arteko harremanen historia laburra duzu artikuluxka hau, sarrera eta guzti. Edo ipuina, nahiago baduzu.

«Zer da zuretzat Euskal Herria?» Hauxe izan zen, aurtengo Tolosako Euskal Kultur Hamabostaldian, **LUR ETA GIZON, Euskal Herria** liburua aurkeztera bildu zirenei ezarririko galdea. Nor bere aburua* agertzen saiatu zen. Erantzun guztien artean, ordea, sustraiko galde bat sortu zen: Izanak ala izatekoak, historiak ala etorkizunak definitzen du Euskal Herria? Ez da akademikoa galde hau, Euskal Herria, beronek orain duenaren bidez definitzea zein nekeza den adierazten du eta.

Hala ere, oraingo une eta egoera honetan Euskal Herria zerk definitzen duen itauntzen* badugu, euskara aipatu* ohi dugu, haren bereizgarri nabarmenera bezala. Baina hizkuntza ere historia bat izan du, egoera bat daduka, eta aurrerantzako joera bat agertzen du. Zein euskarak definitzen du, bada, Euskal Herria? **Izandako euskarak?** Euskara, Herri horren hiz-

kuntza berezia izan da noski, baina izandako Herri baten izandako euskara. **Oraingo euskarak?** Milaka eta milaka gureganatzen diren udatarrei (eta beharbada langileei ere) galdetu nahi nieke, ea lurralde honetan euskal (euskaradun) Herririk somatu* ote duten. **Geroko euskarak?** Geroa, ordea, geuk prestatzen dugu. Eta zein euskara eta zein Herri emanen diogu geroari?

Eman dezagun, euskara izan dela, orain ere ba dela, eta gero ere izanen dela Euskal Herriaren **nortasunaren** eta **bereizgarritasunaren** muina. Baina herritasuna ez da geldia; ez eta haren hizkuntza ere. Euskal Herria ezin daiteke defini, beronen «las esencias puras» direlako horik* agertuz. Bizia da Herria eta honen hizkuntza: urratzen ari den bidearen dinamikaren barnean esan behar da zer den herritasuna.

Euskal Herriari dagokionez, honen herritasuna ezin daiteke adieraz, inguruko Herriekin izan dituen eta izanen dituen ha-

Zuzendari aldaketa ANAITASUNAn

Azkeneko urte ta erdian geure zuzendari izan dugun Joseba Intxaustik utzi egiten du ANAITASUNAREN zuzendaritza, beste tokitan, eta bereziki JAKINen dituen zereginak horretara bortxaturik. Urte ta erdi hori berrikuntza garaia izan da gure aldizkariarentzat; eta zuzendaria izan dugu berrikuntza horretan, Idazle Kontseiluko lagun guztion laguntza eta baietzarekin, lemazaina. Joan badoa ere, gurekin geratzen da lankide bezala. Ez, beraz, adiorik!

Joan Mari Torrealdai dator orain gure zuzendaritzara. Guztiok onhartu ondoren jaso du bere izendapena. Aro berri batean eta eginkizun berriekin hastera doa gure aldizkaria; eta ba dakigu, Joan Mari berekin dakarren zuzendari eskarmenduagatik, ANAITASUNAK gidari trebe bat duela harengana. Izan bedi, beraz, ongi etorria, eta jaso beza aldizkaria egiten dihardugunongandik laguntza eskaintzarik osoena. Luzararako izan dadila!

Idazle Kontseilua

Joan Mari Torrealdai
Bilbo

Zuzendari jauna!

ANAITASUNAKo irakurleei aspaldidanik idazteko nintzen eskutitza duzu oraingo hau. Urtebete pasatuxea bete dut, zuk orain eskuetan hartzen duzun aldizkari maite honetan. Aurrerantzean ere ukanen duzu, noski, nire lankide laguntzarik.

Saiatu naiz beti ere ahal nuentxoan ematen, eta batez ere emateko hori Idazle Kontseiluko lagunekin bat eginda betetzen. Horiei zor diet, bada, egin dugunaren parterik onena. Eskerrak, beraz, garrantzizko puntu gori guztietan eman didaten gerizpeagatik. Inoiz ANAITASUNAREN historia egin baledi, oso gogoan hartzekoa litzateke Kontseiluko adiskideon laguntza hau.

Orobat, esker bihozkorrenak ere aldaketarako hain baliozkoak izan ditugun langile hauei: Imanol Kamara jaunari, Pello Mari Ezeizari (lan isila eta beharrezkoena hauek betetakoa). Eta berdin gure Kontseilu gazte helduari. Urtebete honetan benetan egon dira gurekin!

Azken urteon bildu den, eta zuk zalantzarik gabe, nik baino hobeki zabal dezakezun idazle multzo horrekin, ANAITASUNAK berehalako etorkizunik onena izan dezake. Ikusten dudana bezalaxe esaten dizut. «Jakin» aldizkariaren garairik oparoena eta bizkorrena gidatu zenuen bezala, ANAITASUNAREkin beste hainbeste gertatuko dela espero dut. Eta zegur naiz (inolako lausengurik gabe diot) egindakoak ongi onduko dituzula.

Lankideei eta irakurleei neure agurra bidaltzen dieran honetan, zure esanetara geratzen naiz, bada, eginkizun hobea bat mami dezagun.

Jose Intxausti

Agur, irakurle!

Aspaldi honetan Frantziako lurraldeetan ibili onoren, izpirituz beti hemen egon banaiz ere, osoan behintzat itzuli berria nauzu Euskal Herrira. Etorri ere, asmotan aberats eta lan egiteko gertu etorri naiz. Gogo eta asmo horik ANAITASUNAN hezurmamitu nahi nituzke oraingoz. Doan bidetik eta egin ditzakegun berrikuntzei esker, aldizkari bizi, gazte, sendo eta jator bat izango da ANAITASUNA.

Lanari ekiteko memento honetan eskerrak ematen dizkiet, azken aldi honetan zuzendari izan den Joseba Intxaustiri eta Idazle Kontseiluari. Eskerrak ANAITASUNARI jarri dizkiozuen oinharri tinkoengatik eta eman diozuen bideagatik. Bidea, erdi eginik baino gehiago aurkitu dut. Elkar lanean egingen dugu aurrerantzean ere bide hori berorren osoan.

Aldizkari mundu honetan dabilenak ba daki, eta ongi jakin ere, zein zaila den nahi litzatekeen guztia lortzea. Babesten gaituen legeak berak baldineztatzen gaitu. Gure ekonomiak buztinezko zangoak ditu. Nahi eta behar genukeen ainako abonatu kopururik ez dugu. Eta abar luze bat.

Egin dezakeguntxoa, nahi genukeenetik urruti xamar ibiliko da sarti, ezinbestean. Gure herri osoaren kontradizio nagusienetako bat den hori, halatsu euskal kulturaren gertatzea aise ulertzen dugu.

Baldinezaturik bai, baina etorkizunean irmo sinesturik, geure herriari alternatiba bat eskaintzeko gauza izango ahal gara!

Hamabostero elkarrekin egongo garelako esperantzan, ez adiorik!

Joan Mari Torrealdai



Aurrera, irakurle eta ikasle!

Hemen gaituzue berriz ere EUSKALDUNTZEN metodoarekin, guztioi aukera emanez, geure hizkuntza nola ikas, zabal eta irakats jakin dezazuen.

Liburu hauetan arras ongi azaltzen dira hitzak eta esaldiak. Ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu, baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, hiru liburuotan, irudiak, eskemak eta esaera zaharrak agertzen dira.

Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontutan hartu dugu haien **noiztasun** eta **maiztasuna**.

Ba dituzte liburuok elkar hizketa eta istorioak ere. Hizkuntzak eguneroko tresna bat izan behar duenez gero, haren zerbitzua agerian jartzeko jarri ditugu istorio eta elkar hizketok.

Geure hizkuntza ikasteko, hemen duzue prest, hiru mailatan, EUSKALDUNTZEN metodoa. Eska ezazue helbide honetara:

EUSKALDUNTZEN

Euskaltzaindia (Academia de la Lengua Vasca)
Ribera, 6
Bilbao-5

ANAITASUNA
BIZKAIA

HAMABOSTEROKOA

JABEA:

San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Biltzarre Nagusia.
Batzarburu: Miguel Zapata (Goya, 25. Madrid-1)

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai, O.F.M.

HELBIDEA:

Bulegoa: Pelota, 4-1.º Bilbao-5
Posta kaxa: 495

INPRIMATZAILE:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35. Bilbao-10
D. L.: BI-1.753 - 1967

"IBERIA EXPRESS"

Portugaleko demokrazia gero eta sendoago

Apirilaren 25eko erregimena bi aldiz aurkitu da memento gaiztoan azken hilabete hauetan. Bietan, eskuinak bere aldera eraman nahi zuen mugimenduaren ura. Bietan, deskolonizazio erabatekoaren* eta ezker indarren beldurrez.

Gogoratzeari onuragarri* deritzagu. Uztailaren* 9an Vasco Gonçalves egiten dute lehen ministro, eta ez Spinolaren kutunago zèn Mario Miguel. Irailaren* 28an, Spinolaren aldeko «gehiengo* isilaren» eta eskuindarren jokoak dator. Eta, gero jakin denez, demokraziaren martxa erabat* aldatzeko asmoa zebilen azpian.

Oraingoan ere, MFA (Indar Harmatuen Mugimendua) aterako da garaile, marxistek eta beste askok bultzaturiko herri mugimendu handi baten laguntzarekin. Lehen ministro Costa Gomes.

Holatsuko gorabeherak ezinbestekoak dira, normalak oso. Izan ere, pentsaezina da horren* bapateko* aldakuntza bat eragozpenik gabe egitea. Harritzekoa litzateke, kolonizazioaren eta **status** zaharraren aldekoak, eta berdin aintzinako sozio-ekonomiazko egiturei* esker bizi izan direnak, iraultzaren aurka ez egotea eta ahal duten guztia haren kontra ez egitea. Harritzekoagoa oraindik, Gobernuak, horietatik defendatzeko ahalbiderik* ez izatea.

Kontrako edo aldeko izan, begien bistako egia biribil batzuk* aitortu beharra dago: esaterako, odol isurtzerik ez dela izan, oso esku bigun jokatu dela 48 urtetako diktaturako gizonekin. Bakar bakarrik errepresio aparamen* zenbait (hala nola PIDE eta Portugaldar Legioa) desegin beharra egon da, egin zutenagatik eta iraganaren sinboloa izateagatik.

Orain, segurenik, gogortu eginen da Gobernuak, eskuindarren desegin nahia eta irrika* frogatu* denez geroztik. Ez dea* esaten, gainera, CIA ere hor tartean ibilia dela, eta Spinolaren zaldia jokatu zuela? Ezker Gobernuak gogortzera eramatea eskuinaren betiereko jokoak da, bestalde. Gogortuz gogortuz, diktadura bat bihurtzeraino eraman, eta orduantxe beraiek demokraziaren izenean kolpea eman. Topiko da jadanik.*

Portugaleko arazoaren berri ematean, hemengo egunkari asko joko itsusian erori* da. Politikazko garbitasun ezinezko baten izenean (hobeki esanez, alternatiba gisa* agertu zèn aldakuntzaren kontrako amorrutz), ager zitezkeen akats eta gehiegikeriak oro* aupatu* dituzte, holako barne poz berezi batekin. Askok eta askok, ezkeraren kontrako zerbait noiz gertatuko egon da. Errealitatea bera desitxuratzearaino ere bat baino gehiago iritsi* da.

Problemari ez zaio falta, ez, Gobernu berri honi, baretik eta kanpotik. Bakoitzetik bat aipatuko dugu.

Denek ezkertiar agertu gura dute gaur Portugalen. Eta martxoko hauteskundeak* prestatzen ari direnez gero, paradoxa bada ere, alderdi sozialista haserre dago. Denak dira orain sozialista. Moda da, aise* zabaltzen ari dena, eta Europa osoan zabaldu ere.

Alderdi sozialista haserre dabil, herriak beragan duen sinesgarritasuna galtzeko arriskutan* jartzen dutelako. Bi arrazoinengatik hori. Lehena, nahasketa sortzen da, programa ez delako zehazki ezagutzen (sozialismo kultural batez mintza gaitzke, kristianismo kultural batez mintzo garen arrazoin berarekin). Sozialisten bigarren arrazoinak ere pisua du, eta hauxe da: sozialismoari bere programaketaren originaltasun eta berezitasun guztia kendu ohi diotela, handik eta hemendik zatika lapurtuz eta ideiak kopiaturaz.

Paradoxa honetan daude, ezker politika egin nahi duten Europako beste alderdi sozialistak ere. Europa osoko fenomenoak baita sozialismo ireki baterako joera hau. Agian,* demokrazia formalaren hutsuneen aurka planifikatzea eta ekonomiazko berdinketa eskatuz, eta dogma-koikeriazko sozialismoaren aurka pluralderditasuna gordez.

Behin betirako higuindurik, Portugaldar herriak diktaturaz ez du deus* jakin nahi, ez eta proletalgoaren diktaturaz.

Portugalek kanpoarekin duen hauzia ere bizi bizirik dago. Tirandura bizia dago NATO eta Portugalen artean. Washington ez da Portugalez fidatzen. Frogarik*? «Aliantza Atlantikoaren Nuklear Batzordearen» Biltzarrea ez du egin nahi izan. Beldur da, Portugaleko ministro komunisten bidez sekretuak sobietarren belarrietara helduko diren.

Portugal, NATOtik irteteko ere prest dago. Herriak hala erabakitzen badu. Hori esan du behintzat Portugaleko lehen ministroaren ordezkari Victor Alves-ek Bruselan. Martxoan ikusiko da hori.

Lanuzteak ugaltzen ari

Azken garai honetan grebak* ugalduz doaz. Bizkaia dugu honetan lekuko* ona. Problemari falta ez delako seinalea da hori, Pello Sandiak esango lukeenez. Eta zuzen esana, gainera.

Lanuztearen antidotua lanegitea da. Ez nago segur. Ez nago segur, batik* bat, hartu ohi diren jokabideak ikusirik. Arazoa plazatik ezkutura* pasa eraztea besterik ez dela nahi dirudi sarri. Lanuzte bat, errepresioaren, zigorraren bidez, langileak kanpora botatzearen eta soldatarik ez ematearen bidez konpondu nahi denean, konpontzea ez baina lehertzapena gerora botatzea lortzen da. Lanuztearen antidotua lanegitea izango da, bai, negoziazioaren bidez bi partaideen elkar hizketaren bidez konponbidea egin ohi denean. Ez dakit.

Beste arazo bat ere ba dago hemen. Noiz da greba bat politikazkoa, eta noiz, aitzitik,* zuzenki lan hauziari lotua? Mundu osoan horren inguruko eztabaidak luzaz dirau.

Guk orain arte uste genuen, grebaren helburuetatik epaitu behar zela haren kalifikatzea. Baina Bilboko SIS (Servicio de Información Sindical) delakoak hauzi hau garbitan jarri ju. Dioenez, legezko bideetatik gestioak egiten direnean, greba hori laborala da. Eta, aitzitik, oposiziozko sindikatu eta taldeek eragina bada, orduan greba hori politikoa da.

Argi eta garbi mintzatzea abantail* ez tipia da, denbora ilun eta nahasi hauetan.

Nazioaren batasunaren kontra omen

Zaragozan, hazilaren* 12ko «Aragón Express» egunkaria bahitu* egin dute, «Europa Press» OPUSen berri banatzaileak dioenez. Idazlan bategatik omen da. «El nacionalismo aragonés» izeneko artikulugatik. Nazioaren batasunaren kontra joan daitekeelako.

«Ramón J. Sender» sarian aukeraturiko artikuluetako bat omen da. Eta egilea, Agapito izenpean, Ramiro Grau da, hain zuzen Huesca hiriko «Círculo José Antonio»ko lehendakaria.

Joan Mari TORREALDAI

daude, dagoz
diote, deutsoe

zaio, jako
zitezkeen, eitekezan



ipar aldea

Baionan prefetura bat?

Baionako Industri eta Merkatal* Ganbarako lehendakari dugun Saint Martin jaunak, erakunde* honek hila-betero argitaratzen duen «Activités en Pays Basque» deitu* aldizkarian, azkeneko zenbakian, ideia zahar bat nahi izan du berritu eta oraingotu, dioelarik, Baionan gero eta beharrezkoagoa dela prefetura baten plantatzea, Gobernuko administralgoa hurbilago izateko.

Arrazoinetarik bi: Baiona hiriak gero eta ekonomi inguru haundiagoa eta azkarragoa* sortzen ari baitu. Eta Biarnoko* eta Ipar Euskal Herriko beharorduak* ez baitira osoki berdinak, baina asko puntutan bereziak.

Oroiteraz dezagun, nola, duela hamar bat urte, Enbata oldak* gauza hori ere eskatzen zuela, iparralderako euskal departamendu bat eskatuz. Eskakizun hori ez da, segur, «Amerikaren» galdetzea*; baina egun guttitako gorabeheretan ba ditu, gutiesten* ahal ez diren abantailak.*

Bestalde, esan dezagun, nola, duela ehun eta hogeita hamalau bat urte, orduko erregeari helerazia izan zitzaion beste eskakizun batek galdetzen zuen, Landesetako departamenduaren hegoaldea Euskal Herriko departamenduari lotua izatea, eta Baiona prefetur hiri bihurtzea. Egia esan, ekonomi sailean, zentzugabekeria bat da, Bokale* eta Tarnose,* eman dezagun, Baionatik bereizirik egotea, administralgo mailan departamenduko mugak bereizten* dituelako.

ZABALen kantaldia Baionan

ZABAL aldizkariak, bere sailaren* segitze*ko, kantaldi bat muntatu behar izan du, joan den hazilaren* 14ean. Kantaldi bat ez nolana hikoia, gainera, zeren* jendalde* ederra bildu baita «Vox» zinemasalara, kantari hauen entzuteran: Xabin Harrixuri (euskara ederki ikasia duen kanpotar bat), Erramuzpe-Berterretxe, Duhalde-Ducos, Maite Idirin-Arbea, Ospital-Carrère, Oihartzunak, Oskarbi eta Oldarra. Emanak izan diren kantuak, gutiz* gehienak, berri berriak edo berrituak ziren. Han ikusi dugu, euskal kantuak ba duela oraingotuz luzaz berritze*ko eta, beraz, bizitzeko ahala.

Euskal kantaldiak Alduden

Hazilaren 3an, igandez, Aldudeko zinemasala tanpez* betea zen. Zer kariz* ote? «Guk» taldeak bere kantaldi berezia **Aita-semeak laborari** ematen baitzuen. Engoitik* hogeita hamar bat herritan emana dukete.* Segur sail* ederra, talde horrek hasi duena.

Sekulako aldian genituen geure musikari eta kantari ezagun trebeak: Sarasola, Berzaitz, Borda, Lacarrieu eta Davant. Biba zuek eta jo beti aitzina*!

Dezagun esan ere, nola hauen aitzinetik* Ospital-Carrère bikoteak zazpi-zortzi kantu, zahar eta berri, beti

bezain artoski* landurik eta suharki* kantaturik eman zizkiguten.

«Ildo»: aldizkari berria

Horra argitaratu berri den aldizkari edo agerkari baten izen berria.

Lehen zenbakian, irakurgai hauk* eskaintzen ditu: Oinharrizko ageria, Baionako ekintza, Carrero Blancoren hiltzea, iraultzaile jokabide bati buruz, eta Larzac-ekoei gutun irekia.

ZABALen 10. zenbakia

ZABAL izeneko kultur batasunak,* izen berez bataiatua duen aldizkariaren hamargarren zenbakia, hilabete honetan jalgi* du plazara.

Mugaren bi aldeetan emendatzen* ari zaizkion irakurleek izanen dute, alde honetan ere, non zer irakur. Hona zenbaki horretan aurkitzen diren gai nagusienak:

Ipar Euskal Herriko industriatzeaz. Gerla ondoko politikazko akordioen urratsak.* Nuklear zentralak haizpean. Emazte batzuek zer pentsatzen duten. Europaren sabeleko mina. Euskal Herriko gataska* linguistikoaren aurrean. Kultur mugimenduz ikuspegi politiko bat. Euskal Unibertsitatea eta «Guk» taldea. Euskal Unibertsitatea kulturaren aitzindari.* «Apez» (poema). Kultur mugimenduz. Euskaltzaleei mintzo. Mehakaberriri ohar beharrezko batzuk. Hitz batuen arazoa.

«Idek eta zabal gogo-bihotzak»

«Herria» liburu sailean, Piarres Lafitte kalonjeak,* P. Ithurralde izenordearekin sinaturik,* liburutto bat guttiz apaina eta mamitsua argitaratu berria digu. «Idek* eta zabal gogo-bihotzak» eman dio izena; eta lapurtarrez idatzirik, euskaldun gazteentzat nasaiki* zabaltzen ditu, bere esperientziak eta jakintza haundiak ekarri dizkion gogoeta eta kontseilu hoberenak, Elizaren eta Kristoren irakaspenetan finkatuz bere esanak.

Aitzin* solasean berak dioenez, liburutto honetan aurkitzen diren lerroak ez dira lasterka irakurtzeko eginak, baina bai goxoki eta gustura, astia hartuz, mami on bat xurgatzen* den bezala, haien muinaz jabetzeko eta gogo-bihotzen hazteko.

Liburuttoa hogeita hamar bat argazki edo fotoz ederturik dator. Agian* izanen du irakurle. Salgai aurkituko duzue «Zabal» liburutegian eta beste zenbaitetan, prezio onean.

Lekuko mintzairen alde

Gobernuko azken biltzarre nagusian, urteko dirualdea* edo presupostua eztabaidatu behar izan dutelarik, diputatu batzuk tokian* tokiko mintzairak eskolan irakastearen alde mintzatu dira, eta azkenean onhartua izan da inspektore baten izendatzea, ikusteko non, noiz eta nola eraman litekeen euskararen, bretoinaren, okzitanoaren, korsieraren* eta beste zenbait hizkuntzaren eskolatan irakastea.

Lehen urrats* bat da. Beharrezkoa dena. Gauden beha,* noraino helduko den bigarrena.

Muga herrien biltzarrea Biarritzen

Hazilaren* 15 eta 16an, Biarritzen elkarretaratu zaizkigu mugaz bi aldeetako erakunde* eta batasun* multzo baten ordezkariak. Iruineko, Donostiako eta Baionako Industri eta Merkatal* Ganbarak, GETIS batasuna, Baionako Ekonomi Ganbara Gaztea, Paueko Unibertsia-

tatea eta Departamenduko Nekazal* Ganbara: erakunde horik* izan dira ordainduak.*

Dezagun esan lehenik, nola gisa* bertuko* biltzarreak egin ziren, joan den eta aitzineko urtean, Akizetik* Baiona-Donostia-Tolosarainoko ekonomibide nagusia hartuz ikergai eta solasgaitzat.

Orain bildu direnen iker* eremua are* zabalagoa izan da. Euskal Herri osoa, Biarno eta Landesetako hegoaldea hartzen dituzte, Aturri*-Baskonia izenez deiturik. Oraingoz elkarrekin osatzen ari duten eta bihar oraindik lotuagoki osatuko duten kulturazko, bizibidezko* eta gizartezko eskualde* haundi berezia agertzen ari digute izandatu ditugun herrialde horiek elkarrekin.

Oroit bedi irakurlea, nola 1977.erako, ontsalaz,* Espaniako Estatuak Europako Merkatu Komuenean sartu behar duen; eta, zenbait urte honetan, hemengo bizibidelari* argi batzuek ikusten dutena gerta liteke: mugaz haraindiko industriaren indarrak hemengoa gaindi leza keela jestu batez, baldin hemengo lantegiak, ttipiak eta haundiak, ez badira, oraindik beretik, bihar etorriko zaien konkurrentzia bizi bizi horri buruz apailatzen.*

Esan gabe doa, ez dela ekonomia edo bizibidea, holaxe, ele* edo nahikari* on batez aldatzen. Beharrezkoa da horretarako, bizibidea guti edo aski kontrolatzen duten erakunde eta batasunen artean, aitzinetik gogoetak eta ikertzapenak ongi egin ondoan, erabakiak har daitezten.

Agian,* Biarritzen moldatu dituzten bi egun berezi horietarik, zeredozer berezi jalgiko* bide* da, gorago aipatu dugun eskualde berri haundiaren abantailetan* eta, beraz, gure abantailetan, arras* ongi baitakigu, 1841.a aitzin mugaren bi aldeetan ekonomiazko harreman edo gurutzamenduak ugari ziren denboran, gure iparralde honek ez zuela egun* bezalako lan eskasiarik.



araba

Gasteizko Kultur Hamabostaldia


«Manuel Iradier» kultur elkartearen ixilik baina egiazki ari da lanean. Azken aldion hainbat oztopo gainditu ondoren, Euskal Kulturaldi bikain* bat eskaini dio Gasteizko hiriari, hazilaren 11tik 25era.

Nik dakidanez, hauxe dugu lehena Gasteizen, eta ez dadila azkena ere izan. Ea Gasteizko euskaldun eta euskaltzaleok behar bezalako erantzuna ematen diogun.

Hona hemen hitzaldi, hizlari eta gainerakoen zerrenda:

Euskal Herriko geografiaren laburpena (Iñigo Agirre Kerejeta). Euskararen egoera gaur (Jose M. Satrustegi). Euskal literatura euskal kulturaren (Santiago Onaindia). Eguratsaren* defentsa (Paulo Areso). Amabost urte Arabako pinturgintzan, eta beronen aurretikoak (Javier Serrano). Folklorea Araban: Ihauterictatik* Bazkoetara* (Joaquín Jiménez Martínez). Hiri kultura eta hiri politika egungo gizartean (Antonio Fernández Alba). Euskal musikaren morfologia (Francisco Escudero). Euskal etnologia gaur (Jose Migel Barandiaran). Gasteizko «Araba»

eta Zarauzko «Oleskariak» koraleen saioa. «Ama Lur» filmearen emanaldia.



gipuzkoa

Bergarako Euskal Hamabostaldia

Aurreko zenbakian esan genuenez, Euskal Hamabostaldi bat izanen da Bergaran, abenduaren 6tik 22ra. Hona hemen programa:

Ostiralea, 6

Arratseko 7etan, Udaletzeko* gela nagusian, euskal pintore eta eskultoreen erakusketaren irekitzea. Erakusketan honetan artista hauen lanak azalduko dira: Alvarez Plagaro, Alvarez Velez, Inurrieta, Mieg, Ortiz de Elgea, Ziriarrain, Amestoy, Nagel, Goenaga, Llanos (pintoreak). Nestor Basterretxea, Remigio Mendiburu, Joxe Agirre (eskultoreak).

Ondoren, Maestri Eskolan, aipatu ditugun lanei buruz, hitzaldiño batzuk izanen dira.

Larunbata, 7

Arratseko 7etan, beheko plazan, euskal liburu eta diskoen erakusketaren irekitzea.

8etan, argazki zaharren erakusketaren irekitzea.

10etan, herriko pilota lekuan, bertsolarien eta trikitilarien jaialdia. Jose Mari Iriondo zuzendari delarik, ondoko bertsolari hauek parte hartuko dute: Agirre, Egi-leor, Gorrotxategi, Lazkao Txiki, Lazkano, Lizaso, Mattin, Xalbador. Tartearen Sakabi-Egañazpi eta Laja-Iurbide trikitilarien saioak.

Igandea, 8: Haurren Eguna


Eguerdiko 12etan, herriko kaleetan zehar haurren ibilaldia, berek egindako buruhaundiekin.

Ordu 1etan, herriko musika bandaren kontzertua.

GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

Arratsaldeko 5etan, herriko pilota lekuan, haurrentzako jaialdia: Zarauzko haur kantariak, «Enseñanza» ikastetxeko eta herriko eskoletako haur kantariak, Kixki, Mixki eta Kaxkamelon pailazoak, euskarazko marioneta saioa.

Astlehena, 9

Arratseko 8etan, Maestri Eskolako aretoan,* hitzaldia. Gaia: Azkoitiko Zalduntxoak.

Asteartea, 10

Arratseko 8etan, Maestri Eskolako aretoan, hitzaldia. Gaia: Hirigintza. Hizlaria: Zubiria jauna.

Asteazkena, 11

Arratseko 8etan, Maestri Eskolako aretoan, jendurreko elkar hizketa. Gaia: Kazetaritza. Hizlariak: Amatiño, Kintana, Mendiguren.

Osteguna, 12

Gaueko 10etan, «Enseñanza» ikastetxeko aretoan, antzerkia. Oiarzungo «Intxixu» taldeak «Orria 778» izeneko teatro lana eskainiko du.

Ostiralea, 13

Arratseko 8 ta erdietan, «Irala» zinematokian, **Ama Lur** eta **Bizibidea Lantzen** izeneko filmeak emanen dira.

Larunbata, 14

Gaueko 10etan, «Enseñanza» ikastetxeko aretoan, kantaldia: Pi de la Serra, Mikel Laboa, Arza anaiak.

Igandea, 15

Eguerdiko 12etan, beheko plazan, euskal lanen erakusketa: Otarre, abarketa, abarka, kaiku, lur ontzi, eta abar. Egileak lanean arituko dira jendearen aurrean.

Ondoren, musika tresna zaharren erakusketa: Tobera, musikitarra, alboka, txistu, txalaparta, eta abar.

Arratseko 7etan, herriko pilota lekuan, Donostiako «Argia» dantza taldearen saioa.

Astlehena, 16

Arratseko 8etan, beheko plazan, «Suzko zezena».

8 ta erdietan, Maestri Eskolako aretoan, hitzaldia. Gaia: Nuklear etxeak.

Asteartea, 17

Arratseko 8etan, Maestri Eskolako aretoan, hitzaldia. Gaia: Bertsolaritza. Hizlaria: Juan Maria Lekuona jauna.

Arteazkena, 18

Arratseko 8etan, Maestri Eskolako aretoan hitzaldia. Gaia: Euskal Unibertsitatea. Hizlariak: Joseba Intxausti eta Paulo Agirrebaltzategi.

Osteguna, 19

Gaueko 10etan, «Enseñanza» ikastetxeko aretoan, Errenteriako Andre Mari koralaren ihardunaldia.

Ostiralea, 20

Arratseko 8etan, Maestri Eskolako aretoan, hitzaldia. Gaia: Euskal ekonomia gaur. Hizlaria: Iñaki Larrañaga jauna.

Larunbata, 21

Gaueko 10etan, herriko pilota lekuan, kantaldia: Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Gorka Knörr, Oskarbi.

Igandea, 22

Goizeko 9etan, Zubietako Zantantzarrak kaleetan zehar.

Eguerdiko 12etan, Herri Meza. Ondoren dantza taldeen ihardunaldiak: Zumarragako **Irrintzi**, Begoñako **Gaztedi**, Gasteizko **Maidier**, Arizkungo **Matil Dantza**, Pasaiko **Alkartasuna**.

Arratseko 8etan, beheko plazan talde guztiak elkarretaratu ondoren, **Agur, Jaunak** kantatuz, bukaera emanen zaio hamabostaldiari.

Hamabostaldi hau «Ber jarako Urrats Berriak» elkar-teak antolatzen du.



bizkaia

Deustuko Unibertsitatea eta ikasleen partaidetasuna

Urrieran 21ean agertu berria da Unibertsitateko Ikasleen Partaidetasuna eratzen duen legea. Lege horren aitzinean,* Deustuko Unibertsitatea erabaki bat hartu beharrean aurkitzen da.

Erretoregoak begitarte* egin dio legeari alde* guztiz. Erretoreak, Ferrer Pi jaunak, argi azaldu zuen bere atxekimendua* egun haietako Bilboko egunkarietan, eta h. zilarren* 25a hautatu zuen bozketa* eguntzat, ikasleek beren ordezkariak hauta zituzaten.

Ikasleak, ordea, etsiturik* daudela dakusagu.* Legea haien-tzat delarik, bide bat edo beste hartzeko gogoeta* egiten ari dira. Kurtzoka eta fakultate bakoitzeko, batzarre batzuk eginak dira. Batzarre horietan guztiotan, lehenik legearen azterketa xehea edo kritika egin nahi izan da. Egin diren kritika nagusienak, funtsean,* hauetara bil daitezke:

1. Partaidetasuna akademi edo eskola mailan gelditzen da (13 eta 19. artikulua), hezkuntza* osoari deus* ere jaramonik* egin gabe.

2. Ikasleen batzarreak, beren ordezkariak behin hautatuz gero, deusetarako eskubiderik gabe gelditzen dira: ordezkari batzordeak* nahi duena egin dezake, ordezkariak ikasleen alde-tik aldaezinak baitira. Ikasleen eta ordezkarien arteko harre-

ELAIS ALAI
YURRE

DANTZATOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI

AMA & LUR

RESTAURANTA

manak «informazio» emateko nahiz «kontseilu» hartzeko baka-rik dira (17. artikulua).

3. Edozertarako elkar daitezten, ikasleek ordezkarien bidez beharko diote Dekanoari baimena eskatu. Honela, berriro ere hautatu egin beharko da, edo isilik egon edo legez kanpoan lan egin, Erretorea eta Dekanoa lehengo berak baitira.

Hauk* honela izanik eta hazilaren 25ean hauteskundeak* ukanen* dituztelarik, kurtso gehienak erabakia hartua dute: 18 kurtsoak ezetza eman diote legeari, eta nahiago dute lehengo-etan segitu; 5 kurtsoak, legea onhartuz, hark ematen dizkien ahalmenekin aurrera egitea hobe dela adierazi dute.

Hemen argi dakusagu, zein eritzitakoak diren ikasle gehie-
nak. Baina orain arte hitz egin dutenak, 1.500 baino ez dira; eta matrikuladunak 4.000 inguru dira nonbait. Beraz, ez dago ezer garbirik ez a erabakirik ere; eta falta den jendeak, 25ean beharko du zirt edo zart egin.

Legea, beste zenbait Unibertsitatetan bezala, Deustukoan ere onhartzen ez bada, legegileek bete egin beharko dituzte legearen hutsuneak, lege hau behinbehinekoa* baita.

Gobernariaren ezetza Ibarrolari

Bilboko erakustoki batetan, Ibarrola aita-
semeek beren pinturen erakusaldi bat antolatze-
koak ziren. Baina gobernaria-
ren «no procede» baten ezezkoaz, pikotara* joan dira haien ametsak.

Agustin Ibarrolak erakusaldi asko eginak ditu: Madrilen, Barcelonan, ihaz Bilbon bertan, Iruinean, Parisen, Londresen, Alemanian, USAn, etab. Euskal Eskolako pintore nagusien eta hoberentzat jotzen du askok Agustin Ibarrola. Oraingoan, bere semearekin batera antolatu nahi zuen erakusaldi hau, bien azken obrak agertuz.

Euskal Herrian zehar eta Espainia osoan, artisten artean bereziki, izen asko biltzen ari dira, «no procede» horren ezezkoa baieztatu bider, eta asmotan zèn erakusaldia benetan egin dadin.

Juanjo Zearreta ezkontzen da

Euskal alfabetikuntzan hain ezaguna dugun eta ANAITASUNAko idazle kontseiluko idazkari* den Juanjo Zearreta, Mañuko Eufemia Urrutia andereñoarekin ezkonduko da, Mañuan bertan, abenduaren 7an.

Zorion osoa eta luzea opa diegu Eufemia eta Juanjori, ongi baitute merezia.

Bilboko Gabon Jaialdia

Eskatua da behar den baimena Bilboko Gabon Jaialdirako; eta lortzen bada, haren programá* hau izanen da:

- Kixki, Mixki eta Kaxkamelon pailazoak.
- Lurdes Iriondo eta Xabier Lete kantariak.
- Lauroko ikastolako «kuku» korua (haurrek osatua).
- Santutxuko ikastolako pailazoak (ikasleak).
- Algortako ikastolako haurren korua.
- Lejoako ikastolako haurren antzerki laburra.

Jaialdi hau, ikastoletako umei eskainia, abenduaren 22an (igandez) izanen da, «Santiago Apóstol» ikastetxeko teatroan, goizeko 11,30 orenetan.* Lejoako ikastolak antolatzen du.

Picassoren «Gernika» nora?

«Europa Press» agentziaren bidez jakin dugunez, Madrileko abokatu talde batek Espainiara ekarri nahi omen du, Picassok New Yorken utzi zuen «Gernika» koadroa. Esaten denez, Espainiako gobernariak bere ere egin omen zuten eskabideren bat, pintura hori penintsulara etor zedin. Picassok Espainiako

herriari utzi omen zion obra hori, askatasun publikoak berretzitzen zirenerako.

Egia esan, ez dugu argi ikusten, koadro horrek Madrilen zergatik egon beharko lukeen. Ez ote dago Bilbora ekartzetik, edo eta Bizkaian leku aproposagoren bat aurkitzerik?

Santi Onaindiari omenaldia

Hazilaren 24ean, eta Larrean.

Amorotoko Santiri egindako omenaldi honek poztu egin gaitu. Nola ez? Langile porrokatua da Santi. Eta haren lana beti hartu izan dugu haintzat.

Leku askotan eta norahide* ugaritan eskaini du Santik bere lana: hala nola, «Karmel», «Milla euskal olerki eder», «Gure bertsolariak», «Eneida», «Euskal Literaturaren Historia». Adibide soilak dituzu honako hauk.

Dena bilduz eta nolabait interpretatuz, bitan adarkatuko nuke nik Santiren euskal eginkizuna. Bateko, idazle gisa,* eta honetan sortzaile lana eta itzulpenak eginez. Haren artikulua Euskal Herriko aldizkaririk gehienetan agertu izan dira, eta haren liburua ere hor daude diodanaren lekuko.* Besteko, Santi biltzaile fina da: ipuinak bildu ditu, antologiak eratu ditu, eta berrikitan* bere Literaturaren Historian material pila ikaragarria jaso du. Eta jendea biltzen ere jakin du Santik. Eta jendearekin, joerak eta eritziak. (Joan Mari Torrealdai).



errioxa

Mahats uzta ugaria

Hazilaren* lehen hamabostaldian, Errioxako mahas-tizainak gelditu egin dira zenbait egunetan mahatsaren biltzetik, ardantokiak beterik zeudelako. Egun horietan pilatutako mahatsa zapaldu egin dute, beruin* bihurtuz; eta tokia lortu dutenean, berriz ekin* zaizkie garraio lanei.

ANAITASUNAren prezio berriak

1975.eko urtarriletik aurrera:

Urteko abonamendua:

Bertorako	300 pezeta
Latin Amerikarako	320 »
Europa eta Ipar Amerikarako ...	330 »

Ale bakoitza: 15 pezeta.

Aurtengo mahats uzta,* haundia izanik, uste zuten baino 25 %ez haundiagoa izan da. Beraz, olioak eskas edukiko badugu ere, ardoa ez zaigu faltatuko, ez kantitatez eta ez kalitatez. Penak ahanzteko edo!



Autoen leihuetan ezartzeko txartelak

Hainbat bide duzu, irakurle, Euskal Herriko gizarte giroa euskalduntzeko, eta bat, zeure autoan euskal kalkomaniak agerian ipintzea da, batez ere euskara eta euskal kulturaren aldekoak badira.

Bide honi jarraituz, ANAITASUNAK, bere izena ezagutertzten duen txartela berriro argitaratu du, ale bakoitza hamar pezatatan salgai jarritz. Eskatzeko: ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

Txartel hau zeure autoan ezartzen baduzu, helburu bi lor ditzakezu: bata, ANAITASUNA aldizkariaren zabaltzearen alde lan egitea, eta bestea, geure herriko gizarte giroa nolabait euskalduntzea.

Eska ezazu, bada, ANAITASUNA txartela, eta ezar zeure autoan.

GERO argitaletxearen egintzak eta asmoak

GERO euskal argitaletxeak bere abonatuak* gehitu nahi ditu, bere asmoak aurrera eramanez ahal izateko. Memento honetan liburu bi zabaltzen ari da: Xabier Leteren **Bigarren poema bilduma*** eta Joxe Erribengoa eta Patxi Ezkiagaren **Euskal Literatura - III**; eta laster beste haur* argitaratuko ditu: **Aintzinako Sozio-ekonomia** (Luis Maria Muxika), **Zozo dantza: marrazkiak, txistek*** (Antton Olariaga), **sozio-ekonomiazko lan bat** (Siadeco), **Euskal Herriaren Historia - II** (Federiko Zabala), **Lan hautatuak** (Jon Mirande) eta **elaberri*** bat (Juan Mari Irigoien).

ANAITASUNAREN irakurleentzako inork GEROREN abonatuia izan nahi badu, haren helbidea* hauxe: GERO, Ed. Mensajero, Apartado 73, Bilbao.

«Kili Kili»ren deiar buruz zenbait gogoeta*

Zabaldu berria den «Kili Kili»ren txartela irakurria dut. Kanean ikusi nuen, eta berehala hunkitu* ninduen han egiten zaigun salakuntzak. Zer dela eta? «Zuek, ni umezurtz izten nozuenok —eta barruan gurasoak, irakasleak, apezak eta herri-

ko gazteak salatzen ditu erruduntzat* —, egingo ete dozue besterik?». «Kili Kili»ren sariketa famatuaz ari da. Salakuntza gogorra, ene ustez. Horrelako gauzak kalean dabiltzanean, ezin gaitzke mututurik egon euskaldunok.

«Kili Kili» zer den ezaguna dute ANAITASUNAREN irakurleek. Hala ere, zerbait esanen dugu horretaz. Jaiotzatik euskaraz dakiten heurrentzako aldizkari baten antzekoa da, euskaraz irakurtzen eta idazten irakasten duena. «Lan eta lan» izeneko koaderno batzuk zabaltzen ditu, 7 urtetarik 10 urtetararteko neska-mutilentzat. Horretaz gainera, sariketak, ibilaldiak eta abar antolatzen ditu. «Kili Kili» herriko euskara sendotzera eta zabaltzera abiatzen da. Eginahala egiten du, haurrek, etxean, kalean edo lagunen artean ikasi duten euskaraz irakurtzen eta idazten ikas dezaten.

Beraz, «Kili Kili» ez da euskara batuan agertzen, euskalkietan baizik: bizkaieraz, gipuzkeraz, nafarreraz... Ikastoletatik kanpora ibiltzen da, umeez, hartaz baliaturik, etxean lan egin dezaten. Gogora dezagun, 1966. urtean Bilbon sortu zela. Euskara batua baino zaharragoa da, beraz, eta eskualde* gehienetako ikastolak baino lehenagokoa.

Orain, kaleko txartelak antz ematen duenez, «Kili Kili» apur bat bazterturik dago, haurren hezkuntzaz* arduratzen direnen artean. Oihu egiten du. Zertarako? Laguntza eskatzeko? Bihotzak hunkitzeko? Horren aurrean neure buruari galde hau egiten diot: Benetan hil zorian ote dago? Merezki ote du «Kili Kili»k heriotzea?

Nik neuk, berriki* bizi izan dudana esperientzia gogorraren ostean,* ez dut sinesten euskararen eta euskal kulturaren ahulezian.* Ez naiz sekula izan ezezkor,* eta orain are* gutiago. Horregatik, euskararen alde ateratzen den oro,* neure anaiatzat dut. Jatorki jokatzeko baldin badu, ez dit axola* haren eta nire arteko desberdintasunak. Konponduko gara bidean, aburuak* zintzoak izanez gero. Aurrerantz joatea da balio duena, eta ez huskerietan erortzea.*



Autoen leihuetan ezartzeko

ANAITASUNA

txartelak,

salgai, 10na pezetatan, gure bulegoan.

Pelota, 4. Bilbao-5.

Behar bada, beste batzuek ez dukete* nire kritzi hau onhartuko. Baina ez dit ardura.* Euskal zaletasuna ez da ene baitan sortu horrelakoei begira. Euskal Herriko gaurko euskalgintzarako mesedegarri izanez gero, «Kili Kili» anaiari laguntza eman behar diogula uste dut. Uko egin ahal izateko atxakiak, atxakia hutsetan gelditzen dira edo zerbait txarragotan.

Hala ere, puntutto bat nahi nuke hemen argitu: «Kili Kili»ren egokitasuna. Zer behar dugu: euskara batua ala euskalkien bizitza? Ohartzen naiz, Euskal Herriak hizkuntza batua behar duela, eta gure kulturak, munduaren aurrean bizirik iraun nahi baldin badu, euskara batuzkoa izan behar duela. Ba dakit, herrialde eta eskualde desberdinetako euskaldunen arteko harremanak ugaltu egin direla, eta horretarako biderik egokiena euskara batua dela. Baina horrek ez du esan nahi, nork bere etxeko eta eskualdeko hizkuntza baztertu behar duenik.

Hainbeste mendetan iraun duten euskalkiak ezin ditzakegu heriotzera eramanez. Herri euskara, eskualdeetan zehar hain desberdina den hizkera, horixe da egunero euskaldunen ahotan dabilena. Bide horretatik sortzen zaio herritarrari euskal zaletasuna, hizkuntzaren estimazioa. Eta zaletasun horixe da —eta ez arrazonamendu hotz eta hutsa— eragilerik hoberena. Egia esan, bide horretatik abiatu izan dira benetako euskaltzale guztiak, eta ez dira horretaz lotsatu behar.

Bestalde, kultur harremanetarako, bai eta euskalki desberdinetakoen harremanetarako ere, gogoz erabili behar dugu euskara batua, gero eta indar gehiago har dezan. Batuak ez ditu euskalkiak hilgo, ez; erdarak hilgo ditu, azkar ibiltzen ez bagara. Horretaz egon daitezela lasai, atxakia hori jartzen duten euskalki zaleak eta batuaren kontrakoak.

Ene ustez, argi dago: euskararen alde jokatu behar dugu, erdararen nagusigoaren* aurka. Arlo honetan, «Kili Kili»k neskato-mutilkoak, beren herri hizkera zaintzen laguntzen ditu. Erdararen nagusigoari oztopoa jartzen dio, alde batetik; eta, bestetik, jaiotzako hizkera lantzeko aukera ematen die haurrei. Euskararen alde ateratzen da, lehen urratsetan* bakarrik bada ere. Euskaldunok zergatik ez diogu laguntzarik emango, asmo horretan hain zintzo lanean ari denari? (Joan Mari Mendizabal).

Liburu berriak

1. LABAYEN, Matxin:

«Txiki» marrazkilari ta umoredun.

«Añamendi», Esnaola, 13. Donostia, 1974.

Liburu honekin «Añamendi» argitarazleak sail berri bat urratzen du euskaraz: humore grafikoarena. Eta hau honela izanik, ezin diezazkiokegu geure txaloak uka.

Berrehun horrialdez eta ehundaz* irudiz horniturik, geure eguneroko nekeetatik ihes egiteko eta geure ezpainetan irribarre sortzeko aukera ederra ematen digu.

2. IRIONDO, Lurdes:

Hego haizearen ipuinak.

«Gero», Ed. Mensajero, Apartado 73. Bilbao, 1973.

Durangoko lehen Azokan (eta aurtien bederatzigarrena egin da), orduan ezagutu nuen lehen aldiz Lurdes Iriondo. Santa Mariako elizpean, taulada* baten gainean, kitarra bat eskuan zuela, kantatzen hasi zen. Ondo gomutatzen* naiz. Jersei gorri batez jantzirik, «Ez dut maitatzen Vietnamgo gerra» kantatu zigun. Lehen aldiz ezagutu nuen Lurdes, eta lehen aldiz entzuten nuen euskal kantu berria. Orduz geroztik, zenbat urte pasatu den! Baina, batez ere, nolako gertakariak jasan ditugun! Den den, hemen dugu Lurdes, bere itxura bigunaz, xarmentaz,* denboraren kontra burrukatzen, oztopo guztiak gaingitzen, bihotzaren balioa eta ideal batek eman dezakeen kemena frogatzen.*

Aurtengo Azokan, Durango hartan bertan, Lurdes saritua izan da, haurrentzat idatzi duen ipuin liburu bategatik.

«Gure herriko ipuin batzuk kontatu nahi izan dizkizuet.



HEGO-HAIZEAREN IPUINAK

Lurdes Iriondo

KIMU saila

GERO

Ipuin zaharrak, aspaldiko gertaerak. Zeuen herria ezagutu eta egunetik egunera gehiago maita dezazuen» (91. horrialdean).

Jaialdietan, diskoetan eta liburuetan mitzo zaigu Lurdes, gazteei eta haurrei bereziki. «Zeuen herria ezagutu eta maita». Hitzekin aldarrikatu* eta ekintzekin frogatu diguna nola ez du adituko?

Liburu oso egokia ikastoletan irakurgai bezala erabiltzeko, eta orain, urte azkeneko opor egunetan, haurrei eta gaztetoei eskaintzeko. (Xabier Gereño).

3. ESTORNES LASA, Bernardo:

Mundua Euskal Erriaren gogoan.

«Añamendi», Esnaola, 13. Donostia, 1974.

Ahoz aho etorri zaizkigun ipuin eta istorioak* bildu ditu liburu honetan Estornes jaunak, horrialde batean euskaraz eta bestean gaztelaniazko itzulpena.

Norbaitek pentsa lezake liburu hau atzerakoia dela, aspaldiko gertakariak erabiltzen dituelako, eta ez gaurkoak; baina herri baten bizitzan gaurkoa atzekoan funtsatzen* da, geroa gaurkoan oinharritzen den legez.* Historiako gertaerak kate batez bezala lotzen dira; eta ezin ditzakegu, hura* osatzen duten atalak eten. Gaurkoa ahantzi gabe, azter dezagun iragana. idazle bakoitzak bere senaz* eta bere dohainez ahalik egokien baliatuz.

Akatsik azaltzekotan, bat aipatuko nuke: ez duela euskara batua erabiltzen. Bestela, liburua guztiz ondo taxuturik* dago, eta euskal irakurlearen sail haundi bati atseginezkoa izanen zaio, segur aski.*

Albistariak:

Paulo AGIRREBALTZATEGI

Xabier GEREÑO

Joseba INTXAUSTI

Joxe Antonio INURRITEGI

Gexan LANTZIRI

Joan Joxe URANGA

Frantziaren erdia greban dago

Giscard d'Estaing hautatu ez zuen Frantzia erdia greban* dago. Gobernuaren gidaritzarekin ez dago ados.*

Traizioa, desordenua, batzuentzat; haserrea, gobernu modu zahartua besteentzat; horixe da hor han hemen salatzen eta aldarrikatzen* dena. Eta protesta hori lanuztearen bidez egina da, sektore publikoan hain zuzen ere.



Georges Marchais
Alderdi komunistaren idazkari nagusia

Lanuzte batzuk* luze doaz, beste batzuk laburrago. Baina luze edo labur, denak ugaltzen. Hala nola, postariena,* Akitanian meagizonena,* telebistan, irratian eta elektragintzan lan egiten dutenena, trenbide eta egunkarietako langileena, Pariseko kale garbitzaileena... Eta beharbada denak ez ditut aipatzen.

Politikan, hauteskundeetan,* irabazi ez zuen ezkerrek, jendetza berberarekin gehienbat, gizarte arazoan irabaz lezake.

Bistan da, politikazko elkar hizketarik Gobernuarekin ez duela ezkerrek oraingo nahi. Giscardek konbidatu zituen. Marchais jaunak ezetza eman zion. Honen segidan, Mitterrandek eta Fabre-k jokabide bera hartu dute.

Elkar hizketarako baldintzak, aspaldi dela jarri zituen Mitterrandek. Politika serioa eta ezkertiarra egitekotan bai. Erabaki sendo eta premiazko batzuk hartzekotan bai, batik* bat ekonomi arloan. Ez, ordea, adabakitan* ibiltzekotan. Ez, gobernu mota hau sinesgarri bihurtzekotan.

Denok dakigu, Gobernuak nahi lukeela holako elkar hizketarik. Bere burua ezertara behartzen ez duelarik, irekitze itxura horrekin bere irudi politikoa ditziratsua agertuko litzateke, eta Giscard alderdien joko eta burruka guztien gaintik geldituko litzateke horrela. Orduan, bada, Giscard ez litzateke Frantzia erdiaren eta kapitalaren lehendakari izanen, Frantzia osoarena baizik.

Ekonomiazko egoera ez dela batere ona, ongi ikusten du Gobernuak. Ezkerrekin elkar hizketa egiteko eta elkarrekin guzak konpontzeko asmo zuzenik ez diot kentzen. Baina gaurko Gobernuak ez du ezkerre beronen horretan hartzen. Ezkerre bitan zatikatu nahi luke: sozialistei ondo ondo esan, eta komunistei gogor. Etendura sor dadin. Sozialistek eskuinera egin dezaten. Komunistak, bakarrik geldi daitezten.

Gobernuak lortuko ote du bere asmoa? Ene ustetan, ez. Eta arrazoin simple batengatik: ezkerre ez dela itsua. Eta ezkerre agintea hartu gura du. Oraingoan seriotan doa. Bai komunistek eta bai sozialistek ba dakite ongi, bakoitza bere al-

detik ez direla sekula horretara iritsiko.* Elkarren dinamika eta elkarren botoak behar dituzte.

Frantziako grebak politikarekin zerikusirik ba duela noruk uka? Baina, Gobernuak eta eskuinak egiten dutenez, greba hori politikazko burruka dela esatea, hauteskundeetan galtzaile gelditu zirenen mendekua* dela aldarrikatzea, politika eskasa da. Lanaren inguruan eta ekonomiazko erreinuan zerbait usteldurik ba dago; eta grebara joateko arrazoin nahikoa eta gehiago da hori.

Gosea eta politika

Berrikitan amaitu da Alimentazioaren aldeko Nazioarteko Biltzarrea, Erroman ospatua.

Bilkura honen ideia, Alger-en, Bumedien-ek bota zuen, 1973.eko irailean.* Gero Kissingerek bereganatu eta ONUra presentatzen du. Eta honek, asmo hori onhartu duelarik, FAOren bidez Erromara biltzen du jendea.

Eroritako ogiari, lurretik hartutakoan,* mun egiten genitza jadanik* ahantzia ere ba dugu. Gose izan ez denak, ogiaren garrantzia neurtzen ere ez daki. Mendebaldeko* galetariak ez du goserik ezagutu.

Gosea, hala ere, munduan errealitate bat da, eta gu geu ere ez omen gaude horren arriskutik behin betirako libratu.

Hirugarren Munduko 460 milioi, eskax janik bizi dira.

Ekialde* Urruneko jendetzaren 25-30%a gosez, gose gorritz bizi da (bizitze baldin bada hori), etab. etab.

Zenbaki hauetan kontatu gabe doa, nolabait sabela betetzen dutenen kopurua,* premiazko kalori eta protein faltaz bizi direnena, halebata.* Batez beste, gosetien kopuruak munduaren erdia osatzen du. Aise* esan behar da.

Hirugarren Munduan gertatzen da batik bat gosearen fenomeno hau. Zergatikoak? Ez dira soilki klimarenak, ekologiazkoak. Lehorteak eta uholdeak ba dira, bai. Sahel, Bangla Desh eta Indiako zoritxarrak gogoratu besterik ez dadukagu.

Baina ba dira beste zenbait arrazoin ere, hots,* sozio-ekonomikoak: esaterako, luraren jabe goaren estruktura, latifundioak, laborantzaren erreforma beharra, eta abar.

Politikazkoa ere ba da gosearen problema hau; eta horixe da batez ere Erroman aztertu nahi izan dena, FAOk atondu* duen biltzarre horretan. Gobernuen aldetik borondate politikorik ez badago, arazo hori irtenbiderik gabe geldituko da, esan du FAOren zuzendariak. Lekuan lekuko problema bakarrik ez baita hori, mundu osokoa baizik.

1970.eko Nobel Sariak, Norman Borlaug jaunak esan du, biziki ongi esan ere, halebata: «Munduko herrialde guztierako



Bengalako gosetia

ekonomiazko politikek errealitateari lotuagoak izan behar dute, ideologiek ez baitiote jendeari jaten ematen. Gosearekin eta pobreziaarekin ezin daiteke bakerik eta gizarteko baretasunik eduki...»

Yasser Arafat, Palestina eta ONU

Arabiaren Gobernuak, Rabat hirian ospaturiko bilkura* nagusian, OLP hartzen dute palestinar herriaren ordezkari bakar eta legezkoak. Harez gero Yasserri gobernu buru baten tratamendua emanen diote.

Politikazko eta diplomaziazko garaitzapen ezin handiagoa da, ONUra etortzearekin Yasserek erdietsi* duena.

Etxoletatik* Manhattan-eko kristalezko palazioa bide luzea dago. Raikalismotik agintera dagoen berbera.

Politika ez da ameskeria, esan du Yasserek. Horretan sinesirik, posiblearen atzetik hasi zen bera, aspaldi dela.

Habarhek eta beste lau gerrillari taldek ez diote holakorik barkatzen. Honaindik Jordanian eta Gazako lurraldean palestinar Estatua egitearekin konformatzen dela eta, derrotatuz hartzen dute Yasserren ekintza beste horiek. Horientzat, Yasserren ONUra joatea, traizioa izan da.

Beste askorentzat —gehientzat, dirudienez— hazilaren* 13a egun historikoa izan da.

Duela zenbait hilabete oraindik, nork amets zezakeen, gerrillari horrek ONUko aulkitik Gobernuari pareko gisa* hitz egingen ziekeenik? Ilunpetako gerrillari kontzientzizgabe bat ez zen, bada, Yasser? Eta palestinar erresistentzia ez zen, bada, terrorista talde bat? Nonbait irakurria dut nik holakorik.

Atzoko terroristak, gaur legezko Gobernu onhartu bat! Ez dira lehenak eta ez bakarrak. Gaur ONUn jezarririk dagoen askok erabili zuen biolentzia eta beldurra kolonizazioaren eta diktaduraren kontrako burrukan. Historiaren itzuliak!

Argi eta garbi esan du, bere herriaren autodeterminazioa eskatzen duela, eta askatasunaren aldeko burruka dela palestinar erresistentzia. Burua lehengo lepotik du Yasserek.

Italian Gobernu berria

Azkenik Italiako indar politikoeak lortu dute Gobernu berria egitea. Noiz artekoa, ordea? Amintore Fanfanik huts egin eta gero, Aldo Morok hartu zuen bere gain eginkizun latz hori. Kristau Demokraziako taldeetan, ezkerrekoa da Aldo Moro. Eta uste zen, sindikatuen eskariei nolabait amore eman ezezik,* komunisteri buruz ere irekia izanen zela Gobernu berria.

Aldo Morok, ordea, errepublikanoekin batera egin du Gobernua, Parlamentuan sozialisten eta sozial demokraten laguntza duelarik. Honek beronek argi adierazten du zein larria izan den irtenbidea eta zein hauskorra izanen den eratu den egoera. Argi dago, aspaldixetik sindikatuak politik indar ikaragarria direla Italiako politik egoera honetan. Bestalde, hor daude komunistak, Italiako bigarren partidurik handiena, Gobernua noiz sartuko zain. Ez dago asmatzaile handia izan beharrik, komunisteri Gobernuan nolabait parte ematen ez zaien bitartean, ez dutela Italian Gobernu luzerik ukanen.* Bestalde, Kristau Demokraziak bere irudimena agortua duela dirudi, eta bere gizonak akituak.*

Idazleak:

Paulo AGIRREBALTZATEGI
Joan Mari TORREALDAI

dezaten, daien
diot, deusat
diote, deusoe
gaude, gagoz
genion, geuntsan

lezake, leike
zaie, jake
zezakeen, zikean
ziekeen, euskioen
zion, eutson

Ehun urte


baino gehiago

diru aurrezapena

laguntzen



BANCO DE BILBAO



HARRI BATEKIN HASI ZEN

IKASTOLAK

Eskolako egunkaria

Osteguna,* hilabeteak 12.

Bederatzi ta erdiak dira. Zubia egiten ari den taldeak ez du aurrera jotzen. Lanik egiteko «gogorik ez dutela» ematen* dute mutikoeak. Bide berriak proposatzen dizkiet, baina ez dute entzun nahi. Zer gertatzen ote da?

Oso gogotsu zebiltzan atzo. Hiriaren alderdi biak lotuko zituèn zubia diseinatu, eta buztinezko etxe bana egin zuten. Bi mutiko, orratzez eta plastikozko hodiez,* zubi zintzilikatua egiten hasi ziren. Baina gaur... dena aldatua da!

Mezu* bat ematera etorri zait Xabier, gure taldeko irakasle bat. Mutikoen artera joan da, eta haiekin hizketan ari. Berehalakoan, Andoni, Iker, Mikel eta Jon, harbelera* joan eta zubiaren neurriak txikitari eman nahiz ari dira, hiriaren maketaren planoak egiteko.

Birritan pentsatu gabe, Iker eta Andoni, itsasorratza* eta koaderno bana harturik, kanpora irtetzen dira. Ni ere haiekin noa.

Ikerrek: Nondik jalgitzen* da eguzkia?

Nik: Ikus dezagun. (Patiora ateratzen gara).

Ikerrek: Hara han eguzkia, han goian.

Andonik: Goi goian?

Ikerrek: Ez. Apur bat beheratxoago. Geroago egonen da gorago.

Andonik: Zer ordu da?

Ikerrek: Hamaikak laurden guttiago.

Andonik: Baina ordu bete aurreratuta gabiltza, ezta?

Ikerrek: Bai! Orain dela gutti agindu zuten ordu bete aurreratzea.

Andonik: Noiz?

Ikerrek: Gasolinarena izan zenean.

Nik: Zergatik uste duzue aurreratu zutela, gasolina eskastu zenean?

Ikerrek: Autoek beren argiak piztu beharrik ez dadukatelako, eta horrela gasolina guttiago gastatzen delako. Ez, ez! Beharbada, kaleko argia eta etxekoa ere piztu beharrik ez dagoelako.

Andonik: Baina elektrargia zentraletatik dator, eta zentral horik* uraren eraginez edo ikatzaren bidez alha* dira. Argiak ez du zerikusirik gasolinarekin.

Nik: Hobe izanen da arazo hau oraingoz bertan behera uztea. Hurrengorako, ondo ondo jakin behar duzue, ea orduaren aldaketak ba ote duen zerikusirik gasolinarekin. Talde batentzako ikasgai egokia!

Andonik: Ordu bi barru egonen da eguzkia goi goian, bi ordu aurreratuta goaz eta. Aitak esan zidanez, orduen aldaketa aspaldiko gauza da: bera txikia zenean ere, ordu bete aurreratuta bizi ziren.

Nik: Eta arratsaldean non egonen da eguzkia?

Andonik eta Ikerrek: Han (Mendebalderantz eskua luzatuz).

Nik: Eta goizeko seietan non zegoen?

Ikasle biek: Han (Ekialdeko mendietarantz seinalatuz).

Andonik: Eguzkiak zerua itzulituratzen du. Hortik irten eta hara joaten da. Mendebaldera, uste dut, esaten dela.

Nik: Zer esan nahi du «mendebalde» hitzak?

Andonik: Mendebal haizea datorren alde. Alde horretara joaten da eguzkia.

Nik: Bai! Eguzkia ezkututzen* den aldeari mendebaldea deritza. Baina non dago Ekialdea?

Ikerrek: Eguzkia jalgitzen den aldean. Han. Besoak zabalik gurutze moduan jartzen banaiz eta eskuinaz Ekialdera jotzen badut, ezkerrek Mendebaldera joko du. Aurrean Iparraldea edukiko dut, eta atzean Hegoaldea. Begira! Itsasorratzaren puntu beltzak Iparraldea seinalatzen du beti. Puntu beltza N letraren parean jartzen badugu, punta zuriak Hegoaldea seinalatuko du. N-rekin Iparraldea adierazten dugu, S-rekin Hegoaldea, E-rekin Ekialdea, O-rekin Mendebaldea.

Andonik: Halaxe da! Amerikako Mendebaldea ere hango maparen ezker aldean dago.

Nik: Eta Euskal Herria non dago? Europaren Ekialdean ala Mendebaldean?

Andonik: Mendebaldean. Errusia dago Ekialdean.

Nik: Zeintzuk dira Europako herrialdeak, «Ekialdekoak» deitzen direnak?

* * *

Zer guztiok adieraziko zituèn mural bat egitekotan gelditu ziren Iker eta Andoni: nola erabil itsasorratza, eguraldi lainotsua dagoenean; nola har bide zuzena eguzkiaren laguntzaz, itsasorratzik ez dugunean; nola aurki Ekialdea eta Mendebaldea Euskal Herrian, Europan, Amerikan... Gero txartel batean idatzi zuten, prest zeudela, gauza hauk* guztiok beste haurrei irakasteko.

«Gauza asko ikasi dugu —zioten txartelean— itsasorratzari, eguzkiari eta Iparralde, Hegoalde, Ekialde eta Mendebaldeari buruz. Esko-

lako besteei irakasteko prest gaude, eta gero mapa baten bidez dirukutxa bat bilatzeko jokoak eratzeko ere gertu* gaituzue. Hiriaren plano bat egina dugu, bai eta zubi zintzilikatuarena ere. Begira! Berbera da, baina neurri txikitari. Hamar aldiz txikiagoa».

* * *

Gaurko ekinaldiaren helburu nagusia zera agertzea izan da: Nola, batzuetan, zenbait arrazoinengatik, mutikoeak ez duten lanik egiteko gogorik, eta nola irakasleak lagun ditzakeen beren jokabidea aldatzen. Egurdiaren, Xabierrek eta biok gai hau erabili dugu geure artean, eta mutiko bat bakarra zela ikutsi dugu, lanik egin gura ez zuena, baina bakar honek besteei ere eragiten ziela. Taldea puskatu egin behar zen derrigorrez. Lanik egin nahi ez zuen mitikoari gidaritza eman eta beste egiteko batetara bultzatzen (itsasorratzaren arazora), bera baino beste lagun ekintzaile eta biziago batekin batera. Mutikoen eginkizunek ondo zehazturik egon behar dutela ikusi dugu, eta «helburu» bat eduki behar dutela. Zubia egin behar zuten mutikoeak benetan bizkortu dira, erakusketak eginen zutela esan zaienean, eta berek egindakoa gurasoei, irakasleei eta ikasleei adierazi behar zutela.

Maria RUBIES

Barcelonako ICEkoa

Errioxara bidaiak

Lejoako ikastolako umeok igandean, urriaren 20an Errioxara joan ginen. Hemendik irten eta Barazarreraino danak trankil trankil joan ginen, baina gero, lo egiteko gogoak pasatu zirenean, batzuk abestuten hasi ginen, besteak jolastuten, eta bat edo beste lo jarraitu zuen. Azkenik Jon Zarraga txistua jotzen hasi zen, eta alai alai Errioxara heldu ginen.

Errioxan mahats asko dago, xuria eta beltza, mahatsondo txikiak, Zubaitzak oriak eta berdeak ziren eta belar gutxi zegoen.

San Bizentzen plaza txiki bat dago eta han zuhaitzak eta bankuak. Mahats asko dago, baita ardo kooperatiba bat. Igandean ere lan egiten dute sasoi honetan. Hango mahatsa oso goxoa da. Mosto egiteko eta zapaltzen hasi aurretik, gauza asko egin behar dira: mahatsondoetatik ebagi, olazko bidoi luze batzuetan sartu, traktoreekin karreiatu, pesatu, eta zapaldu, mostoa irten dadin. Handik denbora batera ardo izango da.

San Bizenteko umeak pozik zeuden, batzuk lanean eta beste batzuk jolastuten. Baita ikusi genuen ere, han, gizonak eta andreak langileak zirela. Hango gizonak, andreak eta umeak baltzeranak ziren. Guretzat gauza harrigarriena hau izan zen: jendeak igandean lan egiteko gogoak zekala.

Errioxan Bizkaian baino zuhaitz guttiago dago, eta zuhaitzak orri oriak daude denbora honetan. Baita ere Errioxan landara asko guttiago dago, ia lur guztiak mahatsarekin baitaude

Luis Xabier ANGULO
Aintzane ARTEAGA
Olatz AZKUE
Izaskun BIGURI
Ikerne GARAMENDI
Zakari GARAMENDI
Martin IRIGOIEN
Iñaki LAS HAYAS
Cesar SANZ

EGBko bostgarrenekoak

ditzake, daikez

zaie, jake

zait, jat

zidan, eustan

zien, eutsen

zieten, eutseen

Bilbo inguruko ikastola batek irakasle bat behar du. Argitasun gehiagorako, dei egin telefonoz numero honetara: 355263.

FEDEA eta EKINTZA

Donostiako apezpikuen gutuna

«Askatasuna predikazioan» izenburuarekin, Elizaren eta Gobernuaren arteko harremanak leunduko ez dituzkeen* gutun bat eman dute argitara Donostiako bi apezpikuek. Elizbarrutiko* apezpei zuzendua da, eta, gertakari batetan oinharriturik, Elizaren dotrina agertzen du argi eta garbi.

Apez ministergoa eta batik* bat predikazioa dela eta, Gobernuko agintariak emandako multez edo multen ordeko giltzapetzeaz ari da gutuna. Aitormen honen ondoren, beste bat egiten dute apezpikuek: halegia,* beren haserre eta protesta behin eta berriro agertu dizkietela herri agintariei.

Apezpikuek apezpen izen onaren eta Elizaren eskubide eta askatasunaren defentsa egiten dute. Gero, sei puntutan ematen dute dotrina:

1. Elizak errespetatu egiten du gizartezko eta politikazko arloen bidezko* autonomia. Baina arlo hauk* argitu egin behar ditu, egiak, moraltasunaren defentsak, bakeak eta pertsonen duintasunaren* zaintzeak hori egitea eskatzen duenean.

2. Sarritan apezpikuen eta apezpen irakatsiak, jokabideak eta isilaldiak oker hartzen dira.

3. Eliz agintaritzak —eta berak bakarrik— du esku bidea, predikazioaren ebanjelio alderdia, erlijio eta eliz alderdia epaitzeko.

4. Egindako salakuntzek, apalak eta pedagogia jatorrean emanak behar dute izan.

5. Ebanjelioaren eta Elizaren irakatsien araberrako* predikazioaren eta zutik dagoen «Ley de Orden Público» delakoaren artean hausturarik dagoenean, kristau guztien kontzientziari dagokio aukeramena egitea.

6. Elizaren askatasunak ez du adierazi nahi, apezak, neurrigabekeriak Estatuko lege zuzenen kontra jokatzeko dutenean, zigor ezinak direnik.

Donostiako «El Diario Vasco» egunkariak eman du argitara gutun hau, urriaren 27an, erdaraz, gutunak berak zuen titulurik gabe. Zortzigarren horrian atera dute, eta ezker alderdian. Eta horri berean eta eskuin alderdian (lehenago eta erraxago ikusteko moduan, behar bada), Román Orbe Garicano kalonjearen* erantzuna. Hau lau aldiz luzeagoa da, eta koadroan dakar titulua, izenburu honekin: «Dudas y perplejidades en torno a un escrito episcopal».

Salaketa gogorra da Orberena: leialtasunik eza, alderdikeria, eta apezek egin ohi dutena beti ontzat ematea. Orbek dioenez, herri agintariak horretan sartzerik ez badute, zer behar dute, bada, egin? Besoak tolestaturik egon? Beldur da Orbe kalonjea, bere artikulua azkenean dioenez, gutun hori ez ote den pasaporte, apezek beren gaiztakerian segi dezaten.

Iruineko Udaletxea Elizari kontsultatzen

Iruinean, Udaletxeak* kontsulta bat egin dio artzapezpikutegiari: halegia, Kontseilu gisa* elizkizunetara joan behar duen ala ez esan diezaion.

Udaletxe barneko eztabaida behin betirako erabakitzeko omen da. Aspaldiko burruka omen. Elizkizunetara joateko, herriko Kontseilu gisa beti, batzuk prest omen daude eta beste batzuk ez.

Kontsultá* bera egiteko ere ez datoz denak bat. Bi agertu dira kontra. Hauek diotenez, Elizara joatea baikoitzaren kontzientziaren gain utzi behar da; eta, gainera, eliz agintaritzak arimez arduratzeko dago, ez instituzioez.

Arazo hau hauzitan jartzea interesgarri da. Lege eta arau batzuk, zutik badiraute ere, bizi ez direlako eta laikotasun baten izenean baztertzeari ongi deritzat. Ikusten ez dudana zera da, Udaletxeak, bere buruaren jabe baldin bada, zergatik egin behar dion Elizari galde hori.

Maurice Blondel filosofoaren omenez

Aurten betetzen dira Maurice Blondel filosofoaren heriotzeko 25 urteak; eta Lovainako Unibertsitateak Estudio Ihardunaldi batzuk eratu ditu, urtemuga hori ospatzeko.

Gaiak oso interesgarriak izan dira. Beste hiru pentsalarik ematen zituzten ikuspuntuetatik begiratu diote Blondeli, han bildu diren 200 filosofoek. Zer pentsa Blondeli buruz, Bergson-en filosofiatik begiratu; zer esan hartaz, Maritain-en filosofia politikoaren arabera kontsideratu; zer, Loisy-ren teologiatik behatu? Ikus daitekeenez, eztabaidakizunik bizienak topa zitezkeen hor.

Lovainan egon da, oraindik ere bizi den Blondelen andereño idazkaria, Mme. N. Panis. 1937.ean beronek lagundu zuen maisu handia, itsu eta argirik gabe zegoela, Pariseko Filosofi Kongresu handi hartan batzarkideei hitz egin ziezaien. Orduan eta beti, Blondelek ukanen du zer esanik denontzat: **Jainkoa, Orozgaintasuna.*** Blondel izan baita, gizatasunari errespeturik handienetakoa ukan dion pentsalari bat, eta —horregatixek ere— Jainkoaren egarri agertu zaiguna.

Berri laburrak

• Isilperik osoenarekin eraman dira Hungaria eta Vatikanoren arteko harremanak. Aspaldixetik harreman horik* elkar hizketa «normalen» bidez eraman ohi dira. Hazilaren* lehen hamabostekoan, Vatikanon elkartu dira Hungariako Ministru Imre Miklos eta Casaroli jauna. Elkar hizketetako arazorik garrantzikoena, agi* denez, apezpiku berrien izendapena izan da.


• Espainiako apezpikuek bezalatsu, Frantziakoek ere arakatu* egin dituzte, gaurko egoera ekonomikoak sortzen dituen arazo moralak, Lourdesen egin diren bileretan. Gai horretaz aparte, hilortzeari* buruzko eztabaida aztertu da. Oso osorik gaitzetsi* dute apezpikuek hilortzea, giza biziaren kontrako jokabidea dela eta. Hala ere, ez dute aipatu, Frantziako Gobernuak esku artean darabilen legeaia.*

• Hazilaren 25etik 30era egin dute Espainiako apezpikuek beren XXI. Bilera Osoa. 8 apezpiku bildu dira. Erabili dituzten gaiak: Ebanjelio gintza eta sakramentuak, Elkar bakegintza, Apezpikuen batzordeen berritza. Lehen puntuan, Espainiako Eliza Katolikoak berrikitan bereziki sentitu duen arazo bat ukitu* da. Hirugarren puntuak apezpikuen lanari begiratzen dio, eta oraingo 14 batzordeen lana hobeki moldatu nahi du. Bilera hau, oraingo lehendakari eta idazkariarekin egiten den azkena izanen da, datorren martxoan egiten baita karguon berritzea.

Egileak:

Joan ALTZIBAR
Joanes GOIA

dezaten, **daien**
diezaion, **deion**
dio, **deutso**
diote, **deutsoe**
dizkiete, **deutseez**
zaigu, **jaku**
ziezaien, **eioen**
zitezkeen, **eitekezan**




Ezker aldetik eskuin aldera. 1: Gurasoen ama.—2: Halaber.—3: Seme batentzat beronen aitaren arreba.—4: Kontsonantea. Aztertu, ikertu. Kontsonantea.—5: Txoria. Bokala. Alorra, saila.—6: Zanpatua. Etxeko abereek jaten duten garau mota (artikuluarekin).—7: Bokala. Jakin. Kontsonantea.—8: Egiten duena.—9: Amerikako Estatu Batuak.—10: Artzainen txakurra (alderantziz eta artikuluarekin).

Goitik behera. 1: Deus (alderantziz).—2: Umeen hizketan. ogia (errepikatuz). Bokala.—3: Gauza bat egiteko jartzen den denbora (alderantziz eta artikuluarekin). Kontsonantea.—4: Bokala. Ipini (alderantziz). Bokala.—5: Elizan ematen da. Pertsona hurbil eta ezaguna, adiskidea.—6: Ekilibrioa. Modu, era.—7: Alaba batentzat beronen aitaren semea. Erraz eta hautsi gabe, alde batera zein bestera bihur- nahiz mugieraz daitekeena (alderantziz eta artikuluarekin).—8: Bokala. Ataria. Kontsonantea.—9: Ur bihurtu. Kontsonantea.—10: Gauzez egiten dugu. Bokala.—11: Joan aditzaren forma.

Goitik behera. 1: Ezer.—2: Papa. A.—3: Epea. R.—4: A. Ezarri. O.—5: Meza. Lagun.—6: Oreka. Gisa.—7: Ne- ba. Zalua.—8: A. Aterte. T.—9: Urtu. R.—10: Lo. A.—11: Doaz (goaz, zoaz).

AZALPENAK. Ezker aldetik eskuin aldera. 1: Amona.—2: Ere.—3: Izeba.—4: R. Arakatu. Z.—5: Eper. A. Arlo.—6: Zapal. Artoa.—7: E. Ezagutu. Z.—8: Egile.—9: USA.—10: Artzanora.





MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI Muelle de Uribitarte, 15 BILBO-9

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABANTAIL, ventaja.
 ABONATU, abonado, suscritor.
 ABURU, eritzi.
 ADABAKI, moriendo, morceau à rapiecer.
 ADOS, conforme.
 AGIAN, seguramente.
 AGI DENEZ, dirudienez, al parecer.
 AHALBIDE, posibilidad.
 AHULEZIA, makaltasun.
 AIPATU, mencionado. (Iparraldekoek, klasikoei bezala, aipatzen esaten dute).
 AISE, aisa, f4acilmente.
 AITZINA, aurrera.
 AITZINEAN, aurrean.
 AITZINDARI, aurrelari, pionero.
 AITZINETIK, aurretik.
 AITZIN SOLAS, hitzaurre, prefacio, prólogo.
 AITZITIK, al contrario.
 AKITU, agotado, cansado.
 AKIZE, Dax, Landesetako hiriburua.
 ALDARRIKATU, proclamado.
 ALDARRIKATZE, proclamar.
 ALDE GUZTIZ, totalmente. (Ikus «Axularren Hiztegia».)
 ALHA IZAN, funcionar, marchar, andar.
 AMORE EMAN, ceder. (Ikus «Axularren Hiztegia».)
 APAILATZE, preparar.
 APARAMEN, aparato, tinglado.
 ARABERA, arauera, segun, conforme.
 ARAKATU, aztertu, ikertu.
 ARDURA, axola.
 ARE, oraindik, aun, encore.
 ARETO, sala, sal6n.
 ARNASA, hats, aliento, haleine.
 ARRAS, gutziz, osoki.
 ARRISKUTAN, en peligro. (ARRISKUAN, en el peligro).
 ARTOSKI, cuidadosamente.
 ASKI, nahiko.
 ASKO, aski, nahiko.
 ATONDU, antolatu, eratu.
 ATURRI (hibaia), Adour.
 ATXEKIMENDU, adhesi6n.
 AUPATU, aupaka aldarrikatu.*
 AXOLA, ardura.
 AXOLAGABEKERIA, ardurabagekeria.
 AZKAR, indartsu.

BAHITU, secuestrado.
 BALAKA, ganar por la dulzura.
 BAPATEKO (bat + bateko), repentino.
 BATASUN, elkarte, elkargo.
 BATIK BAT, batipat, batez ere, berezki.
 BATZORDE, comisi6n, comit6.
 BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).
 BAZKO, pazko, pascua.
 BEDEREN, behinik behin, behintzat, gutienez.
 BEGITARTE EGIN, dispensar buena acogida. (Ikus «Axularren Hiztegia».)
 BEHA, begira.
 BEHARRORDU, beharrizan, necesidad.
 BEHATU, begiratu.
 BEHINBEHINEKO, provisional.
 BELAUNALDI, generaci6n.
 BERDIN, igualar, equiparar. (BERDINDU, igualado, equiparado).
 BEREIZ, distinguir, separar. (BEREIZI, bereiztu, distinguido, separado).
 BEREIZTE, separar (BEREIZTE, espezializar).
 BERRIKI, berrikitan, recentemente.
 BERRIKITAN, berriki, recientemente.
 BERTSU, beretsu, casi igual, casi id6ntico.
 BERUIN, mustio, mosto, moút.
 BIARNOA, El Bearn.
 BIDE, beharbada, nonbait.
 BIDEZKO, legitimo, justo.
 BIKAIN, excelente.
 BILDUMA, colecci6n.
 BILKURA, bilera, reuni6n.
 BIZIBIDE, economia.
 BIZIBIDELARI, economista.
 BOKALE, Boucau.
 BOZKETA, elecci6n por votaci6n.

DAKUSAGU, ikusten dugu.
 DEA, al da?
 DEITU, deitutako, deiturikako, deituriko.

DEUS, ezer.
 DIREINO, diren bitartean.
 DIRUALDE, dinaler.
 DITUZKE, ditu nonbait.
 DUINTASUN, dignidad.
 DUKETE, dute nonbait.

EDIREITE, edirete, edirote, aurkitze.
 EGITURA, estructura.
 EGOTZI, jaurtiki.
 EGUN, gaur.
 EGURATS, atm6sfera.
 EHUNDAZ, ciento y pico.
 EKIALDE (eki, sol + alde), oriente, Este.
 EKIN, aplicado intensamente, entregado intensamente.
 ELABERRI, novela, roman.
 ELE, berba, hitz.
 ELIZATE, anteglesia.
 ELIZBARRUTI, di6cesis.
 EMATE, parecer, dar la impresi6n.
 EMENDATZE, aumentar.
 ENGOITIK, honez gero, dagoeneko, para ahora.

ERABAT, gutziz, osoki.
 ERABATEKO, completo, total.
 ERAGIN, influencia, acci6n.
 ERAKUNDE, organismo, entidad.
 ERDIETSI, lortu.
 ERORI, jausi.
 ERORTZE, jauste.
 ERRUDUN, hobendun, hobenduri.
 ESKUALDE, comarca, regi6n.
 ESTE, juzgar, reputar, estimar.
 ETSITU, desesperanzado, defraudado. (Ikus «Axularren Hiztegia».)
 ETXOLA, txabola.
 EUSTE, agarrar, asir, saisir.
 EUTSI, agarrado, asido, saisi.
 EZEZIK, no solamente.
 EZEZKOR, ezkor, pesimista.
 EZKUTATZE, ocultar.
 EZKUTU, escondrijo, lugar oculto.

FROGA, prueba, demostraci6n.
 FROGATU, probado, demostrado.
 FROGATZE, probar, demostrar.
 FUNTS, fondo, esencia.
 FUNTSATZE, basar, fundamentar.

GAITZETSI, condenado, reprobado.
 GALDEZE, eskatze. (GALDATZE, caldear).
 GATASKA, gatazka, debate, disputa, lucha.
 GAUZA, capaz.
 GEHIENGO, mayoria.
 GERTU, prest.
 GISA (1), modu, era.
 GISA (2), bezala.
 GIZARTEZKO, social.
 GOGOETA, consideraci6n, reflexi6n.
 GOGOETA EGITE, reflexionar. (Ikus «Axularren Hiztegia».)
 GOMUTATZE, oroitze.
 GREBA, huelga.
 GUTIESTE, menospreciar, subestimar.
 GUTIZ GEHIENAK, kasik gutziak.

HALEGIA (hala + egia), a saber, es decir, esto es. (ALEGIA, ficci6n).
 HANDIESPEN, estimaci6n de grandeza.
 HARBEL, pizarra, tableau noir.
 HARTUTAKOAN, hartu ondoan, hartu ostean.
 HAUK, honeek. (Hauk aktibo, hauk pasibo).
 HAUTESKUNDE, elecci6n por votaci6n.
 HAZIL, noviembre.
 HEIN, medida, grado, proporci6n.
 HELBIDE, direcci6n, adresse.
 HELDU, maduro, mdr.
 HESPARRU (hesi + barru), recinto acotado.
 HEZ, domar.
 HEZKUNTZA, hezkunde, educaci6n.
 HILORTZE, aborto.
 HIRI, huri, villa.
 HITXI, hetsi, cerrado, ferm6. (HERTSI, herstu, estrechado, apretado. Ikus «Zabal», 7. zenbakia, 52. horrialdea).
 HODI, tubo, tuyau.

HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).
 HORREN, tan.
 HOTS, a saber, es decir, esto es.
 HUNKITU, conmovido, afectado, emocionado. (UKITU, tocado).
 HURA, ha.

IA, kasik.
 IDAZKARI, sekretari.
 IDEK, ideki, ireki. (KI silabaz bukatzen diren aditzek ez dute galitzen azken bokala sustrai infinitiboan).
 IHAUTERI, carnaval.
 IKER EREMU, terreno de examen.
 IRAIL, septiembre.
 IRISTE, heltze.
 IRITSI, heldu.
 IRRIKA, af4n, deseo ardiente.
 ISTORIO, narraci6n, ingelesez story. (IXTORIO, historieta).
 ITAUNTZE, galdetze.
 ITSASORRATZ, brújula, boussole.
 IZTE, uzte.

JADANIK, ya.
 JALGI, atera.
 JALGITZE, irte, urtete, ateratze.
 JARAMON, kasu.
 JAURERRI, seiiorio.
 JENDALDE, gentio.

KALONJE, can6nigo.
 KARI, motivo.
 KONTSULTA, kontsultea, la consulta. (Azentuak artikulua adierazten du).
 KOPURU, suma, cantidad.
 KORSIERA, idioma corso.

LAUDIO, Arabako Llodio.
 LEGEGAI, proyecto de ley.
 LEGEZ, lez, bezala.
 LEKUKO, testigu.
 LUR IREKI, tierra llana.

MEAGIZON, minero.
 MENDEBALDE (mendebal + alde), occidente, Oeste.
 MENDEKU, venganza.
 MERINALDE, merindad.
 MERKATAL, comercial.
 MEZU, mandatu, mensaje, recado.
 MIRESTE, admirar.

NABARITZE, advertir, notar, percibir, sentir.
 NAGUSIGO, nagusitasun.
 NAHIKARI, gurari, deseo.

NASAIKI, abundantemente.
 NEKAZAL, agricutural.
 NORABIDE, direcci6n.

OLDE, movimiento.
 ONTSALAZ, normalmente, en principio.
 ONURAGARRI, provechoso.
 ORDAINDU, representado.
 OREN, ordu.
 ORO, guzti.
 OROKOR, general.
 OROZGAINASUN, transcendencia.
 OSTEAN, ondoan, ondoren.
 OSTEGUN, eguen.

PIKOTA, picota (antiguo instrumento de suplicio). Pikotara joan = ir a la picota, ir al traste. (Ikus Azkueren hiztegi haundia).
 POSTARI, cartero, facteur.
 PROGRAM4, programea, el programa. (Azentuak artikulua adierazten du).

SAIL, zeregin, quehacer, tarea.
 SEN, talento, instinto, quinto sentido.
 SINATU, firmado.
 SOMATU, barruntado, apercebido.
 SUHARKI, ardorosamente, fogosamente.

TANPEZ, s6bitamente, inmediatamente.
 TARNOSE, Tarnos.
 TAULADA, tablado, entablado, estrado, entarimado.
 TAXUTU, convenientemente compuesto.
 TOKIAN, TOKIAN, en cada lugar.
 TXIKIESPEN, estimaci6n de pequeñez.
 TXISTE, chiste, bon mot, dr6lerie.

UDALETXE, herriko etxe, casa consistorial.
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).
 UKITU, tocado, tratado. (HUNKITU, emocionado, conmovido).
 URRATS, pauso. (PAUSU, descanso, reposo).
 UZKUR, someter, sujetar. (UZKURTU, sometido, sujetado).
 UZTA, cosecha, r6colte.
 UZTAIL, julio.

XARMANT, zoragarri.
 XURGATZE, gustar, degustar, paladear.
 ZAPUZGARRI, abandonable, desdeñable.

ZEREN, ze, pues.
 ZINEZ, benetan.

ADITZ INFINITIBOIA

Axularrengan

Dugunean zertaz gosea **hil** eta **larrua estal**, asko* esten* dugu (270: 532-15).

Ez da gauzarik, amorioak **hez**,* **hauts**, **balaka*** eta **errenda** ez dezakeenik (316: 624-1).

Ez dute edireiten* non oina **finka**; ez dute edireiten zeri **lot**; ez dute edireiten girtainik, esku tokirik, sostengurik, eta ez kontsolatzeko biderik, eta ez esperantzarik (385: 756-13).

Semeak dituzunean, **eskola** itzazu haurretik, **uzkur*** itzazu, **eduki** ttipi direino* azpitik (59: 138-3).

rremanak agertu gabe. Ez Herririk eta ez hizkuntzarik ez da bizi hesparru* hitxitan.* Euskal Herriari doakionez, nabarmenagoa da oraindik, kanpotik ezarri zaion dinamika. Gizartezko,* ekonomiazko eta demografiako gurutzapenak eta eraginak* dira Euskal Herriaren herritasuna bideratzen dutenak; eta horien barnean eta batez ere kulturazko gurutzapenak eta eraginak. Kanpotikako kultur ezarpenak bakarrik markatu ote du euskararen bidea, hobeki esan, galbidea? Salbabide bila dabilta euskara eta beronek mamitu nahi duen Herria. Kanpotik etorriko ote zaie salbatzaile hori?

Honela balitz, alferrik genbiltzake, geure euskararen bidez geure herritasuna definitu nahian. Utz diezaiegun kanpotarrei, euskararen dinamika urra dezaten eta geure euskalduntasun berritua defini diezaguten.

ESPAINIARRAK ESPAINOLTZEN

Ba da ustemoduren bat hortik, gaztelania, euskaldunek erabiliriko latinetik sortua dela esaten duenik, eta euskaldunok espainolen gurasotzat hartzen gaituenik ere. Oraindik orain entzuna dugu Ministru baten ahotatik: «Lo vasco es la manera universal de entender lo español». Zer esan nahi duen ulertzen ez badut ere, hori hor dago. Ministruak esana! Eta ulertzeko gauza* izan beharko genuke, gainera, euskaldunok! Baina geure «amatasunaz» ahantzita gabilta nonbait.

Besteren batek argiago esan omen zuen: «Ser vasco es ser dos veces español». Zertan ari gara, euskalduna zer den asmatu ezinik? Matematika hutsa da. Ba dakigu zer den espainol izatea. Dobra dezagun, eta horra hor euskaldun jatorra eta osoa.

Hori guztiori ulertu nahirik, honela adieraziko nuke nik: Euskaldunaren emankortasuna eta bihotz zabaltasuna handiak eta miresgarriak dira betidanik. Ez omen dago emankortasun handiagorik, nork bere bizia eta odola besterentzat ematea baino. Honela, bada, latin hondatuak eta bazterreko hizkuntzek itota zedukatzen Hispania odolberritzeko eta biziberritzeko, geure odola eta bizia eman genizkion euskaldunok. Gaztelaniaren arnasa* berriaz, kateatuta zegoen Espainiari unibertsaltasun zabalen bideak ireki genizkion, hispanitatearen sustraiak jarritz.

Gaztelaniaren sortzaile, Espainiaren eratzaila eta espainol-tasunaren zabaltzaile garelarik, ba dugu zertaz harro izan. Gure poetak «historiarik gabeko Herria» gabela esaten badigu ere, Espainiaren historia handiaren eragileak izatea ez da meritu makala.

EUSKALDUNAK ERDALDUNTZEN

Baina operazio horretan erabat* makalduta eta ia* ia odolustuta gelditu zen Euskal Herria. Indarrrik gabe, ez zen bere euskalduntasunari (euskaraduntasunari) eusteko* ere gauza. Eta «biologiaren» legez ama emankor izan zena, politikaren legez, berorren alabak irentsia izateko arriskutan gelditu zen. Ama mantendu behar zukeen alabak, harek bizitzeko ere beharrezkoa zuen lurraldettoa txikiagotu egin dio eta poliki poliki azpia jan.

Historiaren indarrez eta historiaren indarren indarrez, euskaldunok erdaldunduz joan gara, indar horiek gure axolagabekeriarekin bat egiteraino. Eta hau esateagatik inor haserretuko balitzait, axolagabekeria hori astindu nahi izan zuen Axular handiaren GEROn sarrera irakurtzera bidaliko nuke.

Honela, bada, euskararen bidez Euskal Herria definitzeko, historian oinharria bilatzen genuenoi, historiak berak jan digu oinharri hori. Eta geure euskal jabetasuna galtuta ezezik,* geure euskalduntasuna definitzeko ere burua galtuta gabilta.

ERDALDUNAK EUSKALDUNTZEN

Orduan, halabeharrez, euskaldun izateaz gabe, euskotar izateaz definitu nahi izan zen Euskal Herria. Euskotarrek osatzen zuten benetan Herria; besteak kanpotarrak ziren. Eta hauek, euskotarrak izan ezinean, euskara ikasiz gero, ba zuten nolabait euskaldun behintzat bihurtzeko modurik.

Harritzekoa da, Euskal Herrian euskaldun berriak duen ga-

rrantzia eta izen ona. Izan ere, nork ez daki euskaldun berria zer den? Sarritan euskaldun berria euskotarren ametsa bezala agertzen da. Euskotarrentzat nahiz euskaldunentzat miresgarria da euskaldun berria; eta euskaldunak berak ere bereganako txikiespena* nabaritzen* du nolabait bere barnean, euskaldun berriaren aurrean. Baina euskotarrari, euskaraz ez dakien neurrian eta ikasten saiatzen ez den heinean* gertatzen zaio harrigarri eta miresgarri euskaldun berria. Euskotarrak nahia-go luke, erdaldunak (kanpotarrak) beren buruak euskalduntzen saiatzea, bera eta beste euskotarrak saiatzea baino.

Euskaldun berriaganako mirespen eta handiespen* horrekin batera, euskotarrok, geure euskal sustraiak segurtatuak ditugulakoan edo, alde batera utzi izan dugu euskara. «Agur», «egun on», «eskerrik asko» eta horrelako beste zerbait edozein unetan eta tokitan harro harro jautikitzeaz aski* dugu, geure buruak euskalduntzat jotzeko.

Bitartean, beharbada, geure txakurrari ere euskaraz eginen diogu, eta geure hurrei euskaraz egiteko agindu ere bai, txakur eta haur, guztiak euskaldun berri bihurtu nahian edo. Baina geure artean berdín zaigu (nahiago dugu) erdaraz egin, euskotarrak baikara, eta ez baitugu euskararen premiari, euskotar izateko. Txakurra eta haurra euskaraz egitera behartu gabe, baina bere haurrak ikastolara bidaltzen dituen kanpotar hori ez ote da euskaldunago, haurrak ikastolara joatera behartu bai, baina bere lagunaren artean eta familian erdara parra parra egiten duen euskotar hori baino?

Kanpotarrak euskaldundu egin behar dira, euskotarrok erdaldun izaten segituko badugu ere. Horixe da askoren jokabidea.

EUSKOTARRAK EUSKALDUNTZEN

Bide honetatik abiatuta gabiltzalarik, erdaldunek aurrea hartu digute. Geure euskalduntasuna eta herritasuna finkatu eta definitu eta geure euskara geuk batu eta bideratu nahian gabilta, gero herritasun eta euskara hori kanpotarrei ezartzeko; baina oraintxe galdetzekoa dugu, ez ote diguten kanpotarrek gure euskalduntasuna zer izanen den argituko, geuk zer den argitu baino lehen.

Euskaldunok geure Herriaren eta euskararen galbidean gozela, kanpotarrak Euskal Herriaren salbabidea irekitzen ari zaizkigu. Ikastolak eta gau eskolak erdaldunetaz eta kanpotarren hurrez gero eta beteagoak ditugu. Euskaldunok euskara erabiltzeko dugun axolagabekeriaren* neurrian, erdaldunok eta kanpotarrek euskara ikasteko zaletasuna agertzen dute sarritan. Hortixek ez ote zaio etorriko salbabidea Euskal Herriari?

Euskaldun berria miresten* genuen; euskaldun zaharrok gaitzetsiko* gaituzte laster. Euskaldun zaharrok geure historiarekin geratuko gara, izandako Euskal Herriaren ametsetan; kanpotarrek beren etorkizunarekin iraunen dute, izanen den Euskal Herria sortzen eta eratzen. Erdaldunak eta kanpotarrak izanen dira, Euskal Herri zaharri odol eta arnasa berria emanen dizkietenak, eta Euskal Herri berria sortuko eta indartuko dutenak.

Zer da guretzat Euskal Herria? Zer da guretzat euskara batua? Beraiek esanen digute zer izanen den Euskal Herria eta zer izanen den euskara batua; eta beraiek euskaldunberrituko gaituzte euskaldun zaharrok eta euskotarrok. Beharbada, etorkizuneko euskararen ez da buruhausterik izanen z eta s nola bereiz* jakiteko, euskara irakatsiko diguten andaluziarrek ez baitute horrelako problemarik izanen, beraientzat berdina denez gero. Etorkizuneko euskararen ez da h letraren gorrotorik eta burrukarik izanen, euskara irakatsiko diguten kanpotarrek onhartua baitute h-a ere.

Eta honela sortuko eta eratuko digute, guk definitu ezin dugun Euskal Herria.

Eskerrik asko, bada, kanpotarroi! Eskerrik asko espainiarroi! Eskerrik asko biharko euskaldunoi!

Paulo AGIRREBALTZATEGI